



DANI BLANCO

Garbiñe Biurrun Mancisidor



EHUKO

IRAKASLEA,

EPAILEA

Udazken hotza

BADAKIT uda estreinatu berria dugula eta asko kostatu zaigula honaino iristea, arlo guztietan. Badakit gutako asko ez garela oraindik oporretara joan. Badakit, baita ere, jende askok ez duela oporrik izango, lanik ez duelako. Beraz, beharbada, estilo gutxikoa izan daiteke udazkena aipatzea uztailean gauden bitartean.

Baina, nire iritziz, behintzat, aipatzera derrigortuta gaude; aipatzera eta prestatzera. Zeren eta, datorren udazkena beroberoa izango da. Edo, hobeto esanda, hotz-hotza: zero azpitik izan daiteke eskubide sozialei dagokienez. Jendea zain dago eta antzematen da: hainbatek eta hainbatek aipatzen didate lan edo gizarte auzitegietan irailetik aurrera izango dugun lan berezia –berezia kopuru eta izaera aldetik– edota sortzen ari den egoera berria. Eta, dirudienez, horrela izango da, bai, inork ez badu konpontzen handitzen ari den gatazka soziala.

Hainbatek eta hainbatek aipatzen didate lan edo gizarte auzitegietan irailetik aurrera izango dugun lan berezia –berezia kopuru eta izaera aldetik– edota sortzen ari den egoera berria. Eta, dirudienez, horrela izango da, bai, inork ez badu konpontzen handitzen ari den gatazka soziala.

Hitzarmen kolektiboez ari naiz, alde batetik. Hitzarmen kolektiboen sistema tradizionalaren heriotzaz, hain zuzen ere. 2010ean hasiera eman zitzaion lan erreformaren azken pausoa –atzera pausoa–: batzuek hasiera eman zioten erreformari eta besteek amaitzen ari dira. Arau berrien ondorioz, denok dakigunez, hitzarmen kolektiboez beren “ultra-aktibitatea” galduko dute alderdiek hitzarmena salatzen dutenetik urtebete igarotzen bada hitzarmen berria lortu gabe.

Panorama guztiz berria da eta, egia esan, inork ez daki zer irtenbide eman

behar zaion. Inork ez. Ez enpresaburuek, ez sindikatuak, ez epaileok... Inork ez. Dagoeneko, badakigu enpresa batzuetan lan baldintzak aldatzen –jais-ten– hasi direla eta berehala planteatuko direla lehen demandak auzitegietan. Ez dakiguna da zer-nolako erantzun juridikoa emango zaion, baina ezta zer-nolako erantzun soziala jasoko duen ere egoera berri honek. Zeren eta, nola onar dezakegu gure lan baldintzak atzeraka doazela eten gabe? Nola onartu egoera honetan, egunetik egunera, denok pobretzen ari garela eta, gainera, enplegua sortu beharrean, oraindik egunero galtzen ari dela? Batzuek lana galdu dute, beste batzuek ez dute inoiz lanik izan eta denok galdu ditugu horren kostata irabazitako eskubideak.

Baina udazkenak beste trumoi soinu dakar, bai. Pentsioen erreformaren azken atzera pausoa baita ere: Espainiako Gobernuak adierazi du pensioen jasagarritasun faktorea definitzeko lege proiektua irailean aurkeztuko duela. Horrela esanda, “jasagarritasun faktoreak” ez dirudi oso arriskutsua, baina adi, adi. Gauza onik ez da ekimen horretatik espero behar, ezta ere. Udaberrian ezagutu genuen hainbat adituk egindako pensioen erreformari buruzko txostena eta, gogoan baduzue, ondorioak garbiak ziren: pensioen sistema ez omen da jasagarria. Argi dagoena da, beraz, zalantzarik gabe, neurri honekin ere, pensioak “hoztu” egingo direla, nahiz eta oraindik ez daki- gun noraino.

Udazkena ez da beroa izango, ez; oso hotza baizik. Hozten ari dira lan baldintzak, hozten gure itxaropenak eta auke- rak, hozten gure kementa. Eta zer egin horren aurrean? Bada, hotzaren aurka egi- ten duguna: ondo jantzi, gure etxea babes- tu, egurra bildu, gure jendearekin elkartu eta, besotik helduta, aurrera egin eta egoe- ra epelagoa sortu. Hobe dugu lehenbailehen hastea lan horretan zeren eta, udazken hotz horren ondoren, negu gorria etor daiteke. ■

